

**Kontrol Kodea**  
 Código de Control

**GEF-GET-IVTM-01-DN.489 //**

<b>ZERGA-EGITATEA</b> <b>Noiz eskatzen da zerga?</b>	<b>HECHO IMPONIBLE</b> <b>¿Cuándo se exige el impuesto?</b>
<p>Bide publikoetatik bidaiatzeko egokia den trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasunagatik eskatzen da TMIZ. Bide publikoetatik bidaiatzeko egokizat jotzen dira, eta, beraz, zerga eskatuko zaie, honako hauei:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Matrikulatutako ibilgailuei, ez badaude baja emanda Trafikoko Zuzendaritza Nagusian.</li> <li>- Idi baterako baimena eta matrikula turistikoa duten ibilgailuei.</li> </ul>	<p>El IVTM se exige por la titularidad de un vehículo de tracción mecánica apto para circular por las vías públicas. Se consideran aptos para circular por las vías públicas, y por tanto se les exigirá el impuesto:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Los vehículos matriculados en tanto no hayan sido dados de baja ante la Dirección General de Tráfico.</li> <li>- Los vehículos con permisos temporales y matrícula turística.</li> </ul>
<b>SORTZAPENA</b> <b>Zerga eskatzeko zein data hartzen da kontuan?</b>	<b>DEVENGO</b> <b>¿Qué fecha se tiene en cuenta para determinar la exigencia del impuesto?</b>
<p>TMIZ urte natural bakoitzeko urtarilaren 1ean sortzen da; hortaz, zerga eskatzea ebazteko kontuan hartzen den informazioa urte bakoitzeko urtarilaren 1ean zirkulazio-baimenean jasota dagoena da.</p>	<p>El IVTM se devenga el 1 de enero de cada año natural y por ello la información que se tiene en cuenta para determinar su exigencia es la que consta en el permiso de circulación a 1 de enero de cada año.</p>
<b>SUBJEKTU AKTIBOA</b> <b>Nork eskatzen du zerga?</b>	<b>SUJETO ACTIVO</b> <b>¿Quién exige el impuesto?</b>
<p>Getxoko Udalak eskatuko du TMIZ, baldin eta urtarilaren 1ean zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea Getxo udalerrikoa bada. Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Erregistroan agertzen den informazioaren arabera eskatzen du Getxoko Udalak zerga.</p>	<p>El IVTM será exigido por el Ayuntamiento de Getxo cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación a 1 de enero pertenezca al municipio de Getxo. El Ayuntamiento de Getxo exige el impuesto conforme a la información que consta en el Registro de la DGT.</p>
<b>SUBJEKTU PASIBOA</b> <b>Nori eskatzen zaio zerga?</b>	<b>SUJETO PASIVO</b> <b>¿A quién se exige el impuesto?</b>
<p>Sortzapenaren unean, hots, urtarilaren 1ean zirkulazio-baimenean ibilgailuaren titular gisa agertzen den pertsonari eskatuko zaio TMIZ.</p> <p>Ibilgailua data hori baino beranduago eskualdatzen bada, zerga berdin-berdin eskatuko zaio urtarilaren 1ean zirkulazio-baimenean titular gisa agertzen zen pertsonari.</p>	<p>El IVTM será exigido a la persona a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación en el momento del devengo, 1 de enero.</p> <p>En el caso de que se produzca la transferencia del vehículo con posterioridad a dicha fecha, el impuesto seguirá siendo exigido a la persona que constaba como titular a 1 de enero en el permiso de circulación.</p>
<b>ZERGA-KUOTA</b> <b>Zenbat ordaintzen da zergagatik?</b>	<b>CUOTA TRIBUTARIA</b> <b>¿Cuánto se paga por el impuesto?</b>
<p>TMIZren zerga-kuota aldatu egiten da ibilgailuaren motaren eta potentziaren arabera. Tarifa individualizatuak jakiteko, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean indarrean den eta Getxoko Udaleko zerga arautzen duen zerga-ordenantza kontsultatu behar da.</p>	<p>La cuota tributaria del IVTM varía en función de la potencia y clase del vehículo. Para conocer las tarifas individualizadas debe consultarse la ordenanza fiscal reguladora del impuesto en el Ayuntamiento de Getxo que se encuentre en vigor a 1 de enero de cada año.</p>
<b>KUOTAREN HAINBANAKETA</b> <b>Beti ordaintzen da urte osoko kuota?</b>	<b>PRORRATEO DE LA CUOTA</b> <b>¿Siempre se abona la cuota por un año completo?</b>
<p>Alta berrietan, behin betiko bajetan edo ibilgailua lapurtu edo ostu ondoriozko aldi baterako bajetan, zergaren kuota hainbanatu egiten da ibilgailua bide publikoetatik bidaiatzeko egokia izan ez den hilabete natural osoetan, kontuan hartuta Trafikoko Zuzendaritza Nagusian zein datatan eman zaien alta eta baja.</p> <p>Alta berrien kasuan, Udalak hainbanatuta igorriko du ordainagiria. Bajen kasuan, interesdunak urteko kuota ordaindu beharko du, eta, ondoren, dagokion itzulketa kudeatuko da.</p>	<p>En los casos de altas nuevas, bajas definitivas o bajas temporales por sustracción o robo del vehículo, la cuota tributaria del impuesto se prorratea por los meses naturales completos en los que el vehículo no ha sido apto para circular por las vías públicas, teniendo en cuenta las fechas de alta o baja ante la Dirección General de Tráfico.</p> <p>En los casos de alta nueva el recibo se emitirá ya prorrateado por el Ayuntamiento. En los caso de baja, el interesado debe abonar la cuota anual y posteriormente se gestionará la devolución correspondiente.</p>
<b>ZERGALDIA</b> <b>Zenbatero ordaindu behar da zerga?</b>	<b>PERÍODO IMPOSITIVO</b> <b>¿Cada cuánto se paga el impuesto?</b>
<p>TMIZ urteroko aldizkako zerga bat da, eta zergaldiak urte naturalarekin bat datoz. Udalak urtero onartuko duen zergadunaren egutegi fiskalean finkatuko dira zerga ordaintzeko data zehatzak.</p>	<p>El IVTM es un impuesto periódico de carácter anual y el período impositivo coincide con el año natural. Las fechas concretas en las que debe procederse al pago del impuesto serán fijadas en el Calendario Fiscal del Contribuyente que en cada año apruebe el Ayuntamiento.</p>
<b>KUOTA-HOBARIAK</b> <b>Deskonturik ba al dago zergaren kuotan?</b>	<b>BONIFICACIONES DE LA CUOTA</b> <b>¿Existe algún tipo de descuento en la cuota del impuesto?</b>
<p>Getxoko Udalak honako hobari hauek ditu onartuta:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Motor elektrikoa daukaten ibilgailuek % 75eko hobaria izango dute.</li> <li>Gubtxiezen hogeita bost urteko antzinasuna duten ibilgailuek edo ibilgailu historikoei % 100eko hobaria izango dute.</li> </ol>	<p>El Ayuntamiento de Getxo tiene aprobadas las siguientes bonificaciones:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Bonificación del 75% para aquellos vehículos que dispongan de un motor eléctrico.</li> <li>Bonificación del 100% para los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años.</li> </ol>

<p>c) Bost plaza edo gehiago dituzten eta familia ugarizat jotzen den familia-kide baten titulartasun pean dauden ibilgailuek % 90era arteko hobaria izango dute, baldin eta familiaren errenta estandarizatuia 40.000 eurokoa edo baxuagoa bada.</p> <p><b>Hobari horiek jasotzeko, subjektu pasiboak eskari egokia egin behar du.</b></p>	<p>c) Bonificación hasta el 90% para vehículos turismo de 5 o más plazas cuya titularidad recaiga sobre algún miembro de la familia que tenga la consideración de familia numerosa, cuando la renta familiar estandarizada sea igual o inferior a 40.000 euros.</p> <p><b>Estas bonificaciones son de carácter rogado por lo que tienen que ser solicitadas por el sujeto pasivo.</b></p>
<p><b>ZERGAREN MENDE EZ EGOTEA ETA SALBUESPENAK</b>  <b>Zerga noiz ez da eskatzen?</b></p>	<p><b>NO SUJECCIÓN Y EXENCIÓN</b>  <b>¿Cuándo no se exige el impuesto?</b></p>
<p><b>Honako hauek ez daude zergaren mende:</b></p> <p>a) Modeloaren antzinatasunagatik erregistroetan baja hartu duten ibilgailuak, baldin eta salbuespen-kasuetan bidaiatzeko baimena badute, besteak beste era horretako autoetara mugatutako erakusketa, lehiaketa edo karreretan.</p> <p>b) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastatuko atoiak eta erdi-atoiak, baldin eta horien karga erabigarria ez bada 750 kilogramotik gorakoa.</p> <p><b>Honako hauek zergaren mende egon arren salbuetsita daude:</b></p> <p>a) Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko, Bizkaiko Lurralde Historikoko edo toki-erakundeetako ibilgailu ofizialak, herritarren segurtasunerako edo defentsarako atxikita daudenak.</p> <p>b) Ordezkaritza diplomatikoen, kontsul-bulegoen, agente diplomatikoen eta karrerako kontsul-funtzionario egiaztatuen ibilgailuak, kasuan kasuko herrialdeen menpe daudenak, kanpotik identifikatuta daudenak eta beren hedaduran eta mailan elkarrekikotasuna dutenak. Era berean, Espainiar Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen eta estatutu diplomatikoa duten funtzionario edo kideen ibilgailuak.</p> <p>c) Nazioarteko hitzarmenetan edo itunetan ezarritakoaren arabera halakotzat jotzen diren ibilgailuak.</p> <p>d) Anbulantziak eta gaixo edo zaurien osasun-arretarako edo lekualdaketarako zuzenean bideratutako gainerako ibilgailuak.</p> <p>e) Ezintasunen bat duten pertsonen izenean dauden ibilgailuak, baldin eta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailuak badira, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko II. Eranskineko A hizkian araututakoaren arabera, edo</li> <li>- 14 zerga-zaldi baino gutxiago dituzten ibilgailuak badira, ezintasunen bat duen pertsonak soilik erabil ditzan, bere izenean matrikulatuta egonik. Zerga-zaldien muga ez da aplikatuko 1971/1999 Errege Dekretuko III. Eranskin gisa agertzen den baremoan A hizkiarekin kalifikatutako mugikortasun murriztuko gabezia-egoeran dauden pertsonen kasuan, baldin eta ibilgailua gurgildun aulkia erabiltzeko egokituta badago.</li> </ul> <p>Salbuespen hori aplikatzeko, ezintasuna duen pertsonatzat joko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• % 65eko edo hortik gorako ezintasun-maila aitortuta duena, edo</li> <li>• % 33ko edo hortik gorako eta % 65etik beherako ezintasun-maila aitortuta duena eta mugikortasun murriztuko gabezia-egoeran dagoena, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak (ezintasun-maila aitortu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedurari buruzkoak) III. Eranskineko baremoan ezarritakoaren arabera.             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ A, B edo C hizkiak.</li> <li>○ D, E edo F hizkiak, 7 puntu edo gehiago lortuta.</li> </ul> </li> </ul> <p>f) Autobusak, mikrobusak eta hiriko garraio publikoko bidezura bideratutako edo atxikitako gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatziz plaza gutxiago dituzten ibilgailuak, gidaria barne.</p> <p>g) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria, Nekazaritza Ikuskaritzaren Kartillaz hornituta daudenean.</p> <p><b>e) eta g) hizkietan deskribatutako salbuespenak lortzeko, subjektu pasiboak eskari egokia egin behar du.</b></p>	<p><b>No están sujetos:</b></p> <p>a) Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitadas a los de esta naturaleza.</p> <p>b) Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 Kg.</p> <p><b>Están sujetos pero exentos:</b></p> <p>a) Los vehículos oficiales del Estado, Comunidad Autónoma del País Vasco, Territorio Histórico de Bizkaia y de entidades locales, adscritos a la defensa o a la seguridad ciudadana.</p> <p>b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado. Asimismo, los vehículos de los Organismos internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático.</p> <p>c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.</p> <p>d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.</p> <p>e) Los vehículos a nombre de personas discapacitadas que:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sean vehículos para personas de movilidad reducida a los que se refiere la letra A del Anexo II del Reglamento General de Vehículos ó</li> <li>- Sean vehículos de menos de 14 caballos fiscales para uso exclusivo de la persona con discapacidad a cuyo nombre están matriculados. No se aplicará el límite de los caballos fiscales a las personas que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura como Anexo III Real Decreto 1971/1999 siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con silla de ruedas.</li> </ul> <p>Para la aplicación de esta exención, se considera persona discapacitada a quien:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• A quien tenga reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 65 % ó</li> <li>• Tenga reconocido un grado de discapacidad, ó igual o superior al 33 % e inferior al 65 % y se encuentre en estado carencial de movilidad reducida según baremo Anexo III del citado Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración o calificación del grado de discapacidad.             <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Letras A, B o C.</li> <li>○ Letras D, E o F habiendo obtenido 7 ó más puntos.</li> </ul> </li> </ul> <p>f) Los autobuses, microbuses y demás vehículos destinados o adscritos al servicio de transporte público urbano, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.</p> <p>g) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inspección Agrícola.</p> <p><b>Las exenciones descritas en las letras e) y g) son de carácter rogado por lo que tienen que ser solicitadas por el sujeto pasivo.</b></p>